

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Sarea

Ingurumenaren Munduko Eguna

Esperientzia osoa euskaraz

Lehen Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Hondakinak

Ingurumenaren Munduko Eguna esperientzia digital baten bidez zure ikasleekin ospatzea gustatuko litzaizuke?

Ekoetxea saretik *streaming* bidezko jarduera bat proposatzen dizugu, gai hori ikasgelara modu dinamiko eta parte-hartzailean eta balio hezitzaile handiarekin hurbiltzeko pentsatua.

Saioan zehar, gure ingurune naturala kontserbatzearen garrantzia landuko dugu, gaur egun ditugun ingurumen-erronka nagusiak, hala nola kutsadura, biodibertsitatearen galera edo klima-aldaketa, eta eremu indibidual eta kolektibotik hura babesten lagun dezaketen ekintzak.

Aukera ezin hobea da planetaren errespetu, ardura eta zaintza balioak sustatzen jarraitzeko.